

2008ko MARTXOA
10. zk.

aRarteko

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
URTEKO TXOSTENA

2007ko LABURPENA

aRarteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo





AURKIBIDEA

AURKEZPENA	05
DATU OROKORRAK	06
PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO ARLOAK	08
JARDUERAK	14
EZOHIZKO TXOSTENA	20
GOMENDIO OROKORRAK	22
BESTELAKO JARDUERAK:	24
_ ARGITALPENAK	24
_ IKERKETA BEKAK	25
_ JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK	26
_ UDAKO IKASTAROAK	28
_ BISITAK	29
INFORMAZIO INTERESGARRIA	30



Iñigo Lamarca - Arartekoa

AURKEZPENA

Ongi etorri orrialde hauetara! **Arartekoak** **iaz egindako jardueren berri ematen dizugu hemen**. Zuzentzen dudan erakunde honetan, pertsona talde handi batek ilusioz eta zerbitzu publikoa emateko asmoz lan egiten dugu, geure burua etengabe hobetzeko funtsezko helburuarekin. Horrela, **ahalegin handia egin dugu gure lanari buruzko informazioa emateko erabiltzen ditugun baliabideak hobetzeko**. Horren erakusgarri da urteko txosten mardularen laburpena biltzen duen argitalpen hau. Baita oraintsu inauguratu dugun web gune berria ere (www.ararteko.net); hori bisitatzera gonbidatzen zaitugu. Aipatu dudan urteko txostena CD formatuan aurkituko duzu aldizkari honen azalean, eta, lehen adierazi dudanez, Arartekoak 2007an egindako lana biltzen du. Eusko Legebiltzarrari gure lanaren berri ematen diogu, erakunde horren goi ordezkari baikara, euskal herri-administrazioen ekintza eta jardueren aurrean **herritarren eskubideak babesteko**.



Eman dizkiguten betekizunak **giza eskubideak babestu eta bermatzearekin daude lotuta**, ahaleginak egin behar baititugu administrazioen jarduerak eta politika publikoek pertsonen eskubideak behar bezala eta gero eta hobeto zain ditzaten, desberdintasunaren, bereizkeriaren eta bazterketaren kontra eraginkortasunez borroka daitezen eta beren jokaera herritarrek ondo administratuak izateko duten eskubidearekin bat etor dadin. Arartekoaren bulegoan, herritarrek euskal herri-administrazioen jarduera eta ekintza zehatz batzuei buruz **egiten dizkiguten kexak hartu eta aztertzen dira**. Funtsezko lan hori egiteaz gain, **politika publikoak hobetzen ere ahalegintzen gara**, geure kabuz. Horrela, gure eskumenen eremuan, ahal bezain bizi lan egiten saiatzen gara gizarteko hamaika talde edo errealitate zehatzen gainean, izan ere, talde horien eskubideak gauzatzeko orduan, ahultasuna edo arriskua dakarten egiturazko elementuak daude, edota desberdintasuna, bereizkeria edo bazterketa sortzen duten edo sor dezaketen zertzeladak gertatzen dira. **Lagundu iezaguzu gure lana hobetzen, salaketak edo proposamenak helaraziz**.

Azkenik, nahi bat adierazi gura dut. Giza eskubideen sistema, alegia, gure demokrazien eta bizikidetasunaren oinarritzko zutabea, izatez dinamikoa eta ebolutiboa da, eta, hortaz, etengabe hobetu daiteke eta hobetu behar da. Horretarako, botere publikoek ahalik eta gehiena egin behar dute, baina gutako bakoitzaren konpromisoa eta lana ere ezinbestekoak dira. Beraz, **giza eskubideak sustatzen eta babesten laguntzeko eskatzen dizuet**. Gizakiaren bizitzarako eskubidea, duintasunerakoa, askatasunerakoa, berdintasunerakoa, osotasun fisiko eta morala izatekoa, nor bere nortasuna aske garatzekoa, e.a., eskubide horiek guztiak eta horietako bakoitza egunero defendatu behar ditugu. Baita gizakien eskubideak egoera onean mantentzeko ezinbestekoak diren balioak ere: indarkeriarik eza, eta lagun hurkoa, gu bezalakoa ez dena, dibertsitatea, aniztasuna, senidetasuna eta elkartasuna errespetatzea.



Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

DATU OROKORRAK



Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera

toki administrazioa	528
Eusko Jaurlaritza administrazio orokorra	399
foru administrazioa *	128
herri erakundeak	29
justizia	9
estatuko administrazioa	6
privatu erakundeak	1

2007. urtean **4.161 kontsulta** izan dira, erakundearen-gana telefonoz zuzendu diren zein arreta zuzeneko gure hiru bulegoetakoren batera bertaratu diren pertsonenak. **Guztira 2.572 bisita jaso dira eta, horietatik, 632 kexa burutu dira**, hau da, %24,57. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du -arrazoi batengatik edo besteagatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzean-.


2007an guztira **1.558 kexa** aurkeztu zaizkio Arartekoari. Kexen %7,9 talderen batek aurkeztu ditu.

Internet herritarrek erreklamazioak aurkezteko dituzten bideen artean finkatzen ari da. Kexen %36,26 bide horretatik aurkeztu dira. Erreklamazioaileetatik %43,13 bulegoetara bertaratu dira kexa jartzeko.

Aurten, gainera, **ofiziozko 62 espediente** hasi dira. 2007. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokionez, aztertutako kexen %42,26n okerreko jarduerak atzeman dira. **Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten** jarduketak zuzendu ahal izan ditu, **okerreko jardueraren bat agertu duten erreklamazioen %89,72n.**

Kexak eurei lotutako gaikako alorren arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu, aurreko ekitaldiaren aldean, 2007. urtean ia ez dela aldaketarik izan erreklamazio kopuruari dagokionez.


Horietatik %16,34 herri lanen eta zerbitzuen alorrekoak dira, %11,34 Herrizaingokoak eta %10,11 gizarte ekintzakoak.



Erreklamazioaileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa

oso ona	54,79%
nahiko ona	29,45%
nahiko txarra	9,59%
oso txarra	4,11%
erantzunik ez	2,06%


KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA



2007an erreklamazio gehienak toki administrazioaren aurkakoak izan dira, hau da, izapidetutako kexa guztien %48. Eusko Jaurlaritzaren aurkakoak %36,27 izan dira eta foru administrazioaren jardueren aurkakoak, berriz, %11,64. Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez duela irregulartasunik egin dutenik esan nahi, haren esku-hartzeren bat kexa-gai izan dela baizik.


Bizkaiko udalek kexa guztien %48,67 jaso dituzte, Arabakoek %25,19 eta Gipuzkoakoek %23,67.

Kexa aurkeztu duten pertsonen euren borondatez eta izena eman gabe betetzen duten inkestak adierazten du **Arartekoaren esku-hartzea**, alegia, adierazitako interesea, eskaintako arreta, egindako gestioak, etab., **oso ona edo nahikoa dela (erantzun dutenen %84,24k)**, baita kexa ebatzi ez den edo beren aurka ebatzi den kasuetan ere.



Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbaiteraino izan den eraginkorra

konpondutako irregulartasuna	%89,72
konpondu gabeko irregulartasuna (gomendioa ez da onartu)	%10,28



Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (1989-2007)

- 545 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute
- 1.143 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte
- 62 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute
- 264 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte

GAIXO KRONIKOAK

Arartekoak harremana du hiesa, bizkarrezur bifidoa, fibromialgia, etab. bezalako **gaixotasun kronikoekin erlazioatutako elkarrekin**. Maiz, horiek egiten dituzten eskaerak osasun sistemari zuzenduta egoten dira, honek bere prestazioetan ez baititu beti aintzat hartzen gaixo kroniko horien **berariazko premiak**. Beste batzuetan, hainbat sistemari eragiten diote, edota espazio sozio-sanitarioari (azken arlo honi buruz, Arartekoa ezohizko txostena egiten ari da).

Bada, ordea, egun oraindik nolabaiteko gizarte estigma sortzen duen gaixotasun kroniko bat, hots, buruko gaixotasuna. Hori eragozpena da **buruko gaixotasun kronikoa** duten pertsonak beren ingurunean integratzeko. Hori, askotan, beste zailtasun bat gehiago da beren senideentzat eta kostu pertsonal handia eragiten die. Senide gehienak elkarteren bateko kideak dira (ASAFES eta ASASAM Araban, AVIFES Bizkaian, AGUIFES Gipuzkoan) eta federazioa osatzen dute (FEDEFES).

Arartekoak noizbehinkako harremana du horiekin, gaiaren inguruko ezohizko **txostenen jarraipena egiteko bide gisa**. Txosten horietako bat psikiatrikoei buruzkoa da eta, bestea, berriagoa, buruko gaixotasunari ospitaletik kanpo ematen zaion trataerari buruzkoa. Azken bileran azaldu zituzten **oinarrizko arazoak** ondorengoak izan ziren:

- _ Koordinazio soziosanitarioaren beharra.
- _ Harrera-baliabiderik eza eta tutoretzako fundazioen egoera.
- _ Derrigorrezko tratamendu ambulatorioa.
- _ Espetxean dauden buruko gaixoen egoera.
- _ Haur eta gazteen egoera.
- _ Elkarrekin euren finantzaketa-arazoak.
- _ Buru osasunaren behatokia.
- _ Mendetasunaren Legea eta horrek taldean duen eragina.
- _ Laneratzeko arazoak.

LESBIANA, GAY ETA TRANSEXUALAK

Arlo honetan Ararteko erakundeak **lesbiana, gay, bisexual eta transexualen** (edo pertsona transgenerikoen) **berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren alde** egiten du lan; horrela,

- _ Euskal administrazio publikoak kontrolatzen ditu berdintasunerako eta orientazio sexualagatiko edo genero nortasunagatiko bereizkeriarik ez jasateko eskubidea inola ere urra ez dadin.
- _ Orientazio sexualagatiko edozein homofobia edo bereizkeria modu nahiz genero nortasunagatiko edozein transfobia edo bereizkeria modu erazte sustatzen du.
- _ Euskadiko lesbiana, gay, bisexual eta transexual edo transgenerikoen egoerari eta errealitateari buruzko gizarte

EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

Azken urteotan, Ararteko erakundeak **ezgaitasunen bat duten pertsonen problematika** zehatza lantzen ari da, hainbat bidetatik, aurkeztu diren keak aztertu eta ebatzita nahiz ezohizko txostenak eginda, esaterako, **“Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn”** eta **“Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoak duten eraikinen irisgarritasuna”**. Adibide gisa, nola banakako kexen bidez hala ofizioz hasitako bidez erakunde honetan burutu diren jarduerak ugarien artean, arkitektura- eta hirigintza-oztopoak ezabatzeari buruzkoak aipa ditzakegu.

Hala, honakoak eskatu ditugu, besteak beste: eraikuntza berriko espaloiak beharrezkoa eta lehendik zeudenak pixkanaka egokitzea; merkataritza establezimenduetara sartzeko eskailerak kentzea; eta linea guztietan, nola hirikoetan hala hiri artekoetan, behe plataformadun autobus egokituak jartzea.

Hezkuntzaren arloan, ezgaitasunen bat duten ikasleek beren eskolatzeko egokia izan dadin dituzten hezkuntza-premia berezien jarraipena egin dugu. Jakina den arren, esan beharra dago **ezgaitasunen bat duten pertsonen gainerako herritarren eskubide berak dituztela**. Askotan, ordea, euren eskubideak gauzatzeko arazoak izaten dituzte. Oztopo mordoa jartzen zaizkie bizimodu normala egiteko eta gainerako herritarrek dauzkaten aukerak izateko orduan.

ezagutza zabaltzen du eta erakunde publikoek eta euskal gizarteak pertsona horien eskubideak babes ditzatela bultzatzen du.

Arlo honetan garatzen ditugun jarduerak pertsona horien **berdintasuna bultzatu eta sustatzeko** nahiz gai honen inguruan egiten diren keak izapidetzeko izan ohi dira. Horrela, Arartekoak hainbat ekimeni eman dio hasiera, ofizioz, **gay, lesbiana, bisexual eta transexualen**



eskubideak errespetatzeko kultura sustatzearen; familia berriei buruzko udako ikastaro bat ere antolatu du, lesbianen ikusgaitasunari buruzko beka eman du, lan mintegia antolatu du Suediako Homo erakundearekin (orientazio sexualaren arloko berdintasuna sustatzeko herriaren defendatzailea) eta gai honen inguruko hainbat hitzaldi eta konferentzia eskaini ditu. Zenbait kezatan adierazi zaigu beharrezkoa zela zerbitzuren bat hobetzea; halaber, lesbiana gay edo transexualen eskubideen legezko egoerari buruzko zalantzak argitzeko ere eskatu zaigu.

ESPETXERATUAK

Gizarte demokratiko baten ezaugarria zigorraldiak eragindako sufrimendua ahalik eta txikiena izan dadila lortu nahia da. Horretarako, ezinbestekoa da espetxeko zigorra krimenik larrienak zehatzeko baino ez erabiltzea eta, nolana ere, presoak beren eskubideez baldintza normaletan baliatu ahal izango direla eta beren aurkako epaian berariaz mugatu ez zaizkien gizarte onura guztiak eskuratu ahal izango dituztela bermatzea.


Ez da hori egun gertatzen ari dena. Batetik, eragozpen ugari dituzte beren eskubideak erabiltzeko eta nabarmen kaltetzen dira beren laneratzea, gizarteratzea eta familiako integrazioa espetxean sartuta egotearen ondorioz.

Bestalde, **gure espetxe sistema Europako lehena da biztanle bakoitzeko dagoen preso kopuruari dagokionez.** Hori guztia dela medio, espetxeratuak **gure gizarteko talde ahulenetako bat da.** Errealitate hori ikusita, Arartekoak esku hartu egin behar du, arlo horretan kontrol ahalmenik ez izateak dakarren muga izan arren, izan ere, Eusko Jaurlaritzak hainbatetan eskatu du, baina, oraingoz, espetxeen kudeaketak Estatuaren eskumenekoa izaten jarraitzen du. **Arartekoak egungo zigor sistemaren inguruko hausnarketa egitea bulzatu nahi du.** Horregatik, urtero, 1996an botere publikoei



egin genizkien gomendioen jarraipena eta eguneratzea egiten dugu. Une honetan, eginkizun horiek ondorengo ildo nagusi hauetan biltzen dira:

- _ **Sailkapenen eta destinoen politika.** Hirugarren graduko sailkapena eta, preso mota ezberdinei dago-kienez, hala sailkatuta daudenak sustatu eta bideratu ahal izateko baliabideen hornikuntza.
- _ **Emakumea eta espetxea:** eskubideak urratzea, emakumeentzako departamentuetan gune eta baliabide gutxiago egotearen ondorioz.
- _ **Espetxe administrazioaren** eta eremu honetan diharduten elkarten arteko elkarreagina.
- _ **Segurtasun** neurriak eta zigorra betetzeko bestelako aukerak.
- _ Espetxeetako **psikiatria.**
- _ **Espetxeetako gizarte laguntza.** Espetxeratuei kendu ezin zaizkien gizarte zerbitzu jakin batzuek baliatzeko arazoak; zerbitzu horietako batzuk lan merkatura bideratutako prestakuntza-eskaintza edo oinarrizko errentaren prestazioak...
- _ **Preso dauden atzerritarren** problematika zehatza: kaleratzeak, lan eta bizileku baimenak eta beren eskubideez baliatzeko zailtasunak.



GUTXIENGO KULTURALAK

Bereizkeriarik ezaren printzipioak gizabanakoen arteko tratatu berdintasuna bermatu nahi du, horien naziotasuna, sexua, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmenak, ezintasuna, adina edo orientazio sexuala, besteak beste, edozein dela ere.

Pertsona guztiek eskubide berak dituzte eta inor ez da bereizi behar. Bereizkeriak pertsonaren potentziala erabat garatzea eragozten du, gizarte demokratikoen bertuteetan jarritako konfiantza andeatzen du eta gizarte bazterkeria sorrarazten du.

Arartekoak EAEn bizi diren **gutxiengo kulturaletako pertsonen egoera** hobetzea lortu nahi du eta horien eskubideak errespetatzen irakasteko egiten du lan. Orain arte, arreta **ijito herrian** jarri da bereziki, bere idiosinkrasiagatik, Euskal Herrian duen historia luzeagatik eta gure autonomia-erkidegoan berariazko plana eta laguntzako gizarte elkarte propioak izateagatik. Ikusi ahal izan dugunez, bereizkeria larria jasaten du eta gutxiengo gisa dituen eskubideak ez dira behar bezala babesten. Ijitoen zati handi bat Euskal Autonomia Erkidegoko talderik ahulenetako bat da eta gizarte bazterkeria jasateko arrisku handiena du.

Maiz, gainera, bereizkeria jasaten dute eta, ondorioz, ezin dituzte ez ondasunez ez zerbitzuez gainerako euskal herritarren baldintza berdinetan baliatu. Ijitoen komunitateari dagokionez, botere publikoek birbanaketako politiketara bideratu dute jarduna, aintzatespen politiketara egin ordez. Gure ustez, ezinbestekoa da bi motatako politiketara heltzea ijitoen erabateko hiritartasuna eta bereizkeriarik eza eta, azken batean, **ijito herriaren nortasunerako eskubidearen babesa bermatzeko**.

Aurten, ijitoek edo, horien izenean, hainbat elkartek aurkeztu dituzten kexek ondorengo gai hauek izan dituzte hizpide: etxebizitza behar izatea, erroldatzea ukatzea, bizikidetzatza, mesfidantza edo baztertze arazoak, presazioak etetea eta haur ijitoak eskolatzeko arazoak.

ADINGABEAK: EGOERA BEREZIKI AHULEAN DAGOEN TALDEA

Adingabea izate hutsak egoera ahulean egotea dakar. Baina zenbait adingabe, adibidez, familiarik ez dutenak, **egoera bereziki ahulean daude beren eskubideei dagokienez**. Arartekoak lehentasunezko arreta eskaintzen dio biztanleen talde honi, izan ere, honek ez du ia-ia ahotsik, baina gure autonomia-erkidegoan 300.000 pertsonak baino gehiagok osatuta dago. Pertsona horiek berariazko eskubideak dituzte. Eskubide horiek NBEK onartu zuen **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean** eta Eusko Legebiltzarrak onartu eta garatze bidean den haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legean jasota daude.

Azken urte honetan Arartekoak bereziki ondorengo talde edo egoeratan jarri du arreta:

- _ Arriskuko edo babesik gabeko egoeren aurrean adingabeak babestea edo hartzea.
- _ Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak.
- _ Adingabe arau-hausleak (epailearen neurriak bete behar dituztenak).
- _ Sasoikako langileen seme-alabak.
- _ Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.
- _ Poliziak atxilotutako adingabeak.
- _ Tratu txarreko edo eskola-jazarpeneko egoerak.
- _ Familia-topalekuen egoera.

Sektore horietako bakoitzari **berariazko arreta** eskaini zaio, zentroetara bisitak eginda, hezitzaileekin bilerak antolatuta, adingabeekin eurekin elkarrizketak eginda, arduradun politikoeekin bilduta, datuak eskatuta... Kasu guztietan arazoak eta premiak antzeman dira, baina

BERARIAZKO ARRETA TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIA- REN BIKTIMEI

Ararteko erakundeak **sentsibilitate berezia agertu izan du beti terrorismoaren biktimekiko**. Sentsibilitate horrek esan nahi du **biktimekiko solidaritate eta gertutasun jarduera** ezberdinak egiten direla, komunikatuak eginez indarkeriazko gertaera bat jazotzen denean, hedabideetan adierazpenak eginez, eta terrorismoaren biktima diren elkarte eta fundazioen jardueretan parte hartuz.

2007an zehar, jarduerak, ia guztiak, EAEn terrorismoaren eta jazarpen indarkeria deiturikoaren biktimen egoera eta beharrei buruzko **ezohizko txostena** lantzerantz zuzendurikoak izan dira. Hori egiteko informazioa bildu da EAeko udal guztietan, gaian eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sail guztietan, EITBn eta EHUn, eta une honetan informazio hori analizatzen eta aztertzen ari gara. Halaber, bilerak izan dira erakunde ezberdinekin nahiz **Biktimen Arretarako Bulegoko** zuzendariarekin eta haren lantaldearekin edo Eusko Jaurlaritzako **Giza Eskubideen** zuzendariarekin. Arreta berezia eman zaio jazarpen indarkeria deitu zaion horri, elkarrizketak izanez ETAK mehatxaturiko taldeetako pertsonekin.

Elkarrizketa horien gaineko azterketa kualitatiboak nahiz mehatxaturiko talde horien egoera eztabaidatzeko eraturiko lantaldearen ondorioak aterako dituen dokumentua txostenaren atal garrantzitsu izango dira. Halaber, kexaren bat edo beste jaso da biktimen elkarte baten partetik, biktimen memoriarekiko erasokorrak izan daitezkeen kartelak edo pankartak ikusi dituztelako jai giroko eta kultur arloko ekintzetan.



© EJ-GV, Mikel Arrazola

bereziki bitan antzeman dira hobekuntza-beharrizan larrienak: bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-zentroetan eta haurren eta nerabeen buru osasunari eskainitako arretan.

Gainera, Arartekoa interes bereziko beste bi eremutan ere ari da lanean. Horren emaitza datozen hilabeteetan ikusiko da. Eremu horiek adingabeei balioak transmititzearena eta adingabeek Internet edo beste teknologia batzuk modu seguruan erabiltzearena dira.

GIZARTEAN BAZTERTUTA DAUDEN PERTSONAK

Langabezia, baliabideak eskuratu ezin izatea, gizarte eta familiarekiko harremanen haustura, osasunaren narriadura edo gizarte marjinazioa bezalako egoerek edozein pertsona baztertuta geratzea eragin dezakete edo, ondorioz, erabateko hiritartasuna osatzen duten

gizarte eskubideez baliatu ezin izatea. Halako egoeran bizi diren pertsonak egoteak zalantzan jartzen du gure sistemaren eta erakundeen eraginkortasunak, marjinazio prozesuak saihesteko edo geratzeko eta pertsona horien gizarteratzea lortzeko mugak dituztela erakusten baitu.

EAEko pertsona guztiak modu aktiboan gizarteratu daitezela sustatzeak euskal administrazioen helburu nagusia izan behar du eta, horregatik, Arartekoak Administrazioak ildo horretatik burutzen dituen jarduerak sustatzera eta kontrolatzera bideratzen du bere lana.

Arartekoak **gizarte zerbitzuen eta osasun baliabideen artean esparru partekatua** abiarazteko beharraren aurrean esku hartu du. Hainbat txosten eta beka prestatzeko lanak bultzatu ditugu, horien artean honakoak: “Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna”, “Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn”, “EAEko sasoikako langileen egoera” eta “Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular”.



© E.U.-GV, Mikel Arrazola

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko arretaren arloan, Ararteko erakundeak **emakumeek bizitzako eremu guztietan edozein jarduera gizonetik berdintasunean garatzeko duten eskubidearen alde egiten du lan**; hala, administrazio publikoak kontrolatzen ditu berdintasunerako eskubidearen edozein urratzeri dagokionez, berdintasunean oinarritutako gizartea eraikitzeko helburua sustatu eta bultzatzen du eta genero ikuspegia bere jarduera guztietan barneratzen du. Arlo honetan egiten duen lana **hiru ardatz nagusik** definitzen dute:

_ **Sexuagatiko bereizkeria oro ezabatzea.** Arartekoaren egin-kizun nagusia administrazio publikoek funtsezko eskubideak

(besteak beste, berdintasunerako eta bereizkeriarik ez jasateko eskubidea) ez urratzea da. Horregatik, administrazio publikoaren jarduerak kontrolatzen ditugu, sexu batekoa nahiz bestekoa izateagatik egon daitezkeen bereizkeriei aurre egiteko.

_ **Egiturazko desberdintasunaren sisteman oinarritutako gizar-tean emakumeen eta gizonen berdintasuna** lortzea. Hori dela-eta, gure jarduerak, berariaz, honakoetara bideratuta egon behar dute: emakumeen eskubideak defendatzera, haiek gizar-teko eremu guztietan barneratzen laguntzera, erabaki garrantzitsuak hartzean erabateko parte-hartzea izan dezaten eta erabakiak hartzen diren eremu guztietan ordezkariek izan ditzaten sustatzera eta emakume guztien jabe-kuntza faboratzera. Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea helburu horiek sustatzen dituen arau nagusia da Euskadin eta Arartekoak hori nola aplikatu eta garatzen den jarraipena egiten du.

_ **Indarkeria sexista eraztea.** Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen aurkako bereizkeriaren paradigma da, gizar-te patriarkal edo matxistaren adierazpenik beldurgarriena eta emakumeen eskubideen aurka egin daitezkeen lege urratzerik larriena. Indarkeria sexistaren bik-tima diren emakumeei laguntzea helburu duten mekanismo publikoaren eraginkortasuna begiratze aldera, emakume horiek egin ditzaketekexei erantzuten diegu eta, beharrezkoa izanez gero, haiek jasotzen duten arretaren baldintzak hobetzeko eskatzen diegu erakunde publikoei.



© EL CORREO



ADINEKOAK: BEREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEA

Adinekoak zaintzea eta beren bizi baldintzak hobetzea **erabateko erronka da euskal gizartearentzat**. Gero eta gehiago dira (ia 400.000 2007an), eta gero eta zaharragoak (45.000k 85 urte baino gehiago dituzte), eta, beraz, beren mendetasun maila handiagoa da, familia-ereduak aldatzen baitoaz, erakundeen baliabideak mugatuak baitira... Arartekoak jada **ezohizko hiru txosten** egin ditu adinekoen egoera sakon aztertzeko eta hainbat gomendio egin ditu hori hobetzeko. Funtsezkotzat hartzen diren hiru zerbitzu aztertu ditugu bereziki: **egoitza-zentroak** (normalean, mendetasun handiko pertsonak erabiliak), **eguneko zentroak** eta **etxez etxeko laguntza-zerbitzua**. Zerbitzu horiek gehitzen joan dira urtez urte. Horrela, Arartekoak egindako jarraipenarekin bat etorriz, 2007an, EAE osoan, 17.000 plaza baino gehixeago zeuden egoitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan, 3.500 plaza inguru eguneko zentroetan eta 21.000 bat pertsona beren etxeetan artatuak. Hau da, guztira, 41.000 bat adinekok jasotzen zuten zerbitzu horien arreta. Kopuru hori 65 urtetik gorako pertsona guztien % 10,5 da. Baina, esan dugun bezala, **65 urtetik gorako pertsonak ia 400.000 dira**. Horrek esan nahi du 350.000k beren burua zaintzen dutela edo senideren baten edo beste pertsonaren baten arreta jasotzen dutela. **Premiak gehitu ahala baliabideak sortzen joatea erabateko erronka da**, ez bakarrik erakundeentzat, baizik eta baita gizarte osoarentzat ere. Halaxe da, orobat, pentsioak hobetzea, etxebizitzak, garraio-bideak eta hiriak irisgarri egitea, osasun arreta ematea...

Arartekoak, azken urtean emandako beka baten bidez, garrantzi handia duen baina, aldi berean, oso ezaguna ez den beste alderdi bat jorratzen du; hots, hainbat testuingurutan (ospitalean, etxean bertan, egoitzetan) adinekoek tratatu txarrak ematearena edo horiek behar ez bezala zaintzearena. 2007an, oraindik nahikoa berria den eta adinekoentzat ondorio garrantzitsuak dituen **“mendetasunaren legea”** izenekoaren garapen mailaren jarraipena ere egin dugu.

E'TORKINAK

Arartekoak EAEn bizi diren **etorkinen egoera hobetzeko** eta horien eskubideak errespetatzen irakasteko egiten du lan. Beren eskubideak urratu ez daitezzen eta horiek libreki erabil ditzaten ahalegintzeaz gain, pertsona horien irudi negatiboa ematen duten estereotipoak desagerrarazi nahi ditugu, bai baitakigu haiek ahalmen handia dutela, egungo gizarteari ekarpen baliotsuak egiten dizkiotela eta oso kultura aberatsa dutela. Hori dela-eta, arreta berezia eskaini diogu pertsona horien erroldatzeari eta, zeregin horretan, udalei gomendio orokorrak egin dizkiegu eta horien jarraipena egin dugu.

Azken urteotan, erakundeak **arreta berezia eskaini dio bakarrik dauden adingabe atzerritarren problematikari**, egoera bereziki ahulean dagoen eta berariazko ezaugarriak eta premiak dituen taldea dela uste baitugu. Lan horretan, honakoak egin ditugu: ezohizko txostena prestatu dugu, hots, **“Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn”**; aldizka harrera-zentroetan izan gara; ofiziozko espedienteak bideratu ditugu; tutoretza, hezkuntza, dokumentazioa, erroldatzea edo poliziaren jardura bezalako arloetan zenbait irizpide aldatzeko proposamena aurkeztu dugu; agintariekin eta zerbitzuetako arduradunekin bildu gara; kasu jakinei irtenbidea aurkitzeko kudeaketa-lanak egin ditugu; eskuhartze zehatzak egin ditugu gatazka-egoeren aurrean; etab.

Arartekoak, gainera, hainbat azterlan, udako ikastaro edo ikerketa-beka bultzatu ditu, besteak beste, honakoak: “Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular”, “Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban”, “Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erki-degoan: egoera eta itxaropenak” edo “El derecho a la no discriminación por motivo de raza”.

LOKALAK ETXEBIZITZA GISA GAITZEN ARI DIRA

Etxebizitza eskuragarri gutxi izatearen problematika larriaren ondorioz, duela zenbait urtez geroztik udalek neurriak hartu dituzte **lokalak etxebizitza gisa moldatu ahal izateko**. Jarduera horiei buruzko ordenantzek bilakaera izan dute eta, hala, gero eta arduratuago daude sortutako etxebizitzak hala erabili ahal izateko beharrezko baldintzak bete ditzaten (bizigarritasuna, pribatutasuna, irisgarritasuna...). Alderdi horiek jada nabarmendu zituen Arartekoak 2002ko gomendio batean; bertan adierazitakoaren arabera, **beharrezkoa da etxebizitza duina bermatzea** eta bide horretatik infraetxeak sor daitezen saihestea.

Gai honen inguruan jasotako kexa ugariak garbi uzten dute halako jarduerak tentsio handia sortzen dutela lokal horiek egokitu nahi dituzten interesdunen eta jabekideen komunitateen artean. Kasu batzuetan, gatazkak jabekideen komunitateak eraikineko elementu komunak aldatzen uzten ez duelako sortzen dira eta, beraz, interesdunek ezin dituzte lizentzian ezarritako baldintzak bete (adibidez, etxebizitza berrirako sarrera elementu komunetarik egitea). Beste kasu batzuetan, lokal horien titularrek bidezko baimenik gabe jarduten dute elementu komunetan. Jabekideek ez dute halakorik onartzen eta, beren ustez, udalak zerbait egin behar luke, nahiz eta hori soil-soilik legezketasun pribatuko kontua izan.

Nolanahi ere, hain gai korapilatsua izanik eta era guztietako inplikazioak dituenez, Administrazioak zorrotz jokatu behar du **ikuskapen eta kontrol** lanetan, bai sortzen diren etxebizitzek horretarako beharrezko baldintzak izatearen xedea betetzeko bai bizigarritasun betekizunak betetzearen inguruan ez baimenik ez kontrolik ez duten lokalak egokitu daitezela saihesteko.



ALOKAIRUEN ERRENTAK OSO GARESTI DAUDE

2007an hainbat kexatan adierazi zaigu alokairuen errentak oso garesti daudela. Batzuk "**Hutsik dauden etxebizitzaren programari (Bizigune)**" buruzkoak dira; honek dio alokairuko etxebizitzaren errentak ezin izango duela bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren %30 gainditu, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren jabeari ordaintzen dion zenbatekoa edozein dela ere. Gainera, errenta urtero berrikusten da, azken errenta-adierazpenean agertzen diren diru-sarrerekin bat etorritik. Diru-sarrera horiek ez dira aurtengoak eta, beraz, **%30eko muga kasu askotan itxurazkoa da**.

Horrela jarduteak alokairuaren errentak ordaindu ahal izateko errentariei dakartzkien zailtasun objektiboak ikusita, **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari** gure gogoetak helarazi genizkion. Alokairuaren errenten muga gisa diru-sarreraren %30 jartzeko irizpideari dagokionez, zalantzan jartzen dugu ehuneko hori balio absolutu gisa erabiltzea eta errentariekin beste irizpide malguagoak jartzeko eskatzen dugu, esaterako, %25eko irizpidea erabiltzea, Bilboko udal etxebizitzaren esleipena arautzen duen erregelamenduan jasotzen den moduan.

Bestalde, Arartekoan salatu da, orobat, **babes ofizialeko etxebizitzaren alokairuaren errentak ere oso garesti daudela**. Zehazki, gizarte etxebizitza batzuetan bizi den auzotar talde baten kexa jaso dugu, beren alokairu kontratuen baldintzekin ados ez zeudelako. Horren bidez eskatu zuten errentak murriztuz zitezela, baita komunitate gastuetarako zenbatekoak ere, beren iritzi, horiek soberan gainditzen baitute gizarte etxebizitzetan bizi direnen ahalmen ekonomikoa, gizarte etxebizitzak diru-sarrera gutxi dituzten pertsonentzat baitira.





UDALEK ANIMALIAK DITUZTENEK BEREN BETEBEHARRAK BETETZEN DITUZTELA KONTROLATU BEHAR DUTE

Aurten ere, espazio publiko jakin batzuetan (besteak beste, **parkeetan, hondartzan edo herriko berdeguneetan**) pertsonen eta animalien artean bizikidetzako arazoak daudela adierazi zaigu, bereziki, arriskutsutzat hartutako txakurrak tartean direnean. Erreklamazioen talde horretan, beharrezkoa da udalei **animaliak edukitzeari buruzko araudia** betearaz dezatela eskatzea eta pertsonen kalteak saihestea. Animaliak babesteko eta txakurrak edukitzeari buruzko legeek diote udalen eskumena dela animaliak dituztenek beren betebeharrak betetzen dituztela ikuskatzea eta kontrolatzea.

Oro har, **hirietako bideetan eta gune publikoetan, txakurrek kontrolpean egon behar dute eta lotuta ibili behar dute, gehienez ere bi metroko kate edo uhalarekin**. Txakur guztiek dagokien mikrotxipa eraman behar dute, identifikatuta egon daitezen, eta bizi diren herrian errolatuta eta erregistratuta egon behar dute. Dekretu horretan, gainera, eraso jasanez gero jarraitu beharreko prozedura ezartzen da. Garrantzitsua da azpimarratzea, pertsonen eraso eginez gero, horrek kalterik eragin ez arren, animalia albaitariak ebaluatu behar duela, pertsonentzat arriskutsua izan ote daitekeen ikusteko.

Bestalde, **arrazaren tipologiagatik edo animalia beren ezaugarriengatik arriskutsuak izan** daitezkeen txakurren jabeek animaliak edukitzeko araubide murriztaileagoa dute, besteak beste, muturrekoak jartzea edo bi metro baino gutxiagoko uhalak erabiltzea. Txakur bat arriskutsua izan daitekeela deklaratzeko txakurra errolatuta dagoen herriko udalari dagokio.

GALTZADAKO BALAZTA-BANDEK ERAGINDAKO ARAZOAK

Batzuetan, udalek trafikoa arintzeko ezartzen dituzten neurriak ez dira egokiak izaten, bide publikoen erabiltzaileei arazo handiagoak eragiten baitizkiete.

Halaxe gertatu zen Gasteizko industrialde batean. Bertan, legez kanpoko ibilgailu lasterketak egin ohi ziren asteburuetan. Ibilgailuak abiadura handian ibil ez zitezen, Udalak **zeharkako balazta-banden** zortzi multzo ezarri zituen industrialdeko zenbait kaleren galtzadan. Neurriak industrialde horretan lan egiten zuten pertsonen gidatzeko segurtasunari eta erosotasunari ere eragin zien. Horiek salatu zuten, gainera, balazta-bandak zeudela ohartarazteko ezarri ziren seinaleak, funtsean, sakanguneen parean kokatuta zeudela eta, beraz, **gidariek ez zutela ez denborarik ez espaziorik erreakzionatzeko**.

Neurri hori ezarrita sortu ziren arazoan aurrean, Gasteizko Udalak eremu horretako zolan kokatutako balazta-bandak kentzea erabaki zuen.



© E.J.-G.V. Mikel Arrazola

BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK: ARAZOA ALA ERRONKA?

Berrietan maiz aipatzen dira bakarrik dauden adingabe atzerritarrak: hainbat adingabe pateratan etorri direla, Kanarietan gainezka egin dutela, harrera-zentro jakin batean gatazkak izan direla... Eta ondorengo galderak sortzen dira: zeintzuk dira? Zer premia dituzte? Nola hartzen ditugu?... **Gure erkidegoko babes zerbitzuek 3.000 adingaberi baino gehiagori lagundu diete azken urteotan.** 2007an 600 adingabe berri baino gehixeago hartu dira. Adingabe horiek bereziki gatazkatsuak direla zabaldu da eta **oso kezagarria da horiei zuzendutako baliabideak sortzean batzuetan piztu izan den gaitzespenak.**

Ezohizko txosten batean, **Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn** izenekoan, Arartekoak jada haien egoera aztertu zuen eta gomendioak egin zituen. 2007an, hainbat zentro bisitatu ditugu, datuak eguneratu ditugu, ofizioz esku hartu dugu... Gehienek proiektu argia izan ohi dute: edozein gauza lortzea eta ikastea lan egin eta familiari lagundu ahal izateko. Gure seme-alabek haien adin berean izan ohi dutena baino proiektu askoz ere argiagoa. Hori da bilatzen dutena eta gure gizartean txertatzeko behar dutena.

Baina, **gai al gara premia horiei erantzuteko?** Antza, behar bezala ez. Arreta-ereduak berak (zentro handiak jartzea, askotan baliabide eskasekoak eta atzerritarrentzat baino ez direnak) ez dirudi egokiena denik. Are gehiago, gizartearen gaitzespena eragiteko arriskua faboratzen du. Hala ere, esperientziak erakutsi digu, orobat, bitarteko egokiak jartzen direnean, oso emaitza onak lortzen direla.

Erakunde batek berak ere ezin dio, berak bakarrik, errealtate horri erantzun osoa eman. Are gutxiago beste administrazio batzuek ez badute ezer egiten edo gizarteko sektore jakin batzuek baliabide berriak sortzearen aurka baldin badaude. Adingabe horiek hartzea eta integratzea guztiontzat da erronka, eta ez bakarrik babes zerbitzuentzat. Legeak agintzen digu, baina baita justiziak eta solidaritateak ere.

GAIXO KRONIKOEN ERREHABILITAZIOA

Gaixo kronikoen errehabilitazioari dagokionez, gogoan izan dugu, Euskadiko 2002-2010 Osasun Planean bildutako aurreikuspenen artean, Osasun Sailak **Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko Plana** aurkeztu zuela 2007an.

Kexetan maiz errehabilitazioa aipatu ohi da, bereziki, gaixotasun neurologikoak dituztenena. Kexagileek tratamenduetako altarekin ados ez daudela adierazi ohi dute, beren ustez, tratamenduarekin jarraitu behar bailitzateke. Gaixotasun jakin batzuetan, beste batzuetan baino gehiago, funtsezkoa izan daiteke gaixotasun kronikoa izan aurreko **dependentzia/independentzia-maila** edo errehabilitazio tratamendua eragin duen prozesua ezagutzea. Esparru honetan egoki jardunez gero, modu objektiboagoan jokatu ahal izango da beharrezko errehabilitazio tratamenduak aukeratzekoan. Halaber, informazio zehatzagoa eman ahal izango da, altarekin ados ez dauden zenbait senideren iritzi egun ematen dena ez baita oso zehatza. Dirudenez, jokabide objektibo hori, gaixoen historia klinikoetan behar bezala islatuta, oso lagungarria izan daiteke, behin gaixoak ospitaleko hasierako baliabidean alta jaso ondoren, errehabilitazio tratamenduaren jarraipenak zein izan behar duen hobeto zehazteko.

Horiek Euskal Sanitate Publikoan Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko Planaren (2007-2009) helburuak direnez eta Ararteko erakunde horiei dagozkien tratamenduen inguruko kexa ugari aurkezten denez, **Osasun Sailari** informazioa eskatu diogu plan horren egungo garapena ezagutzeko.



GIPUZKOAKO GARRAIOBIDE PUBLIKOAN TXARTEL BAKARRA EZARTZERAKOAN IZANDAKO USTEKABEKOAK

Txartel bakarra ezarri zenean, Gipuzkoako garraio publikoaren erabiltzaileak ez ziren pozik agertu, aplikatzen hasi zenean antzeman ziren disfunczioen ondorioz. Zehazki, herritarren kexak hiru alderdiri buruzkoak ziren: **aldizkako txartela sortzearen ondorioz, ohizko txartelaren prezioak** gora egin zuela; sistema berria ezarri zen lehenengo **egunean hainbat txartel** ezin izan zirela erabili; eta erabiltzaileei **informazio gutxi** eman zitzaizela txartel bakarra aplikatzeak ekarriko zituen ondorioen inguruan.

Sistema arinegi jarri zen abian eta ez zen trantsizio aldirik izan; hori oso lagungarria izango zatekeen berritasunak pixkanaka bereganatu ahal izateko. Zehazki, txartel bakarraren proiektuak tarifen sistema aldatu zuen. Horrela, ibilbidearen kilometro kopuruaren ordez, zeharkatu ziren eremuen arabera tarifikak hasi ziren kontuan hartzen. Horrek eremu horiekiko mugan zeuden udalerrietako biztanleei eragin zien. Era berean, ordaintzeko modua ere aldatu zuen. Sortutako txartelak automatikoki bidaiak metatzen zituen eta deskontuak egiten zituen erabiltzeagatik. Horrez gain, aldizkako bidaiariari, alegia, txartela dirutan ordaintzen zuen bidaiariari, garestiago ateratzen zitzaion ibilbidea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hasiera-hasieratik, erabiltzaileei kalte-ordaina emateko bideak ezarri zituen, sistema berria ustekabeko eta eragozpen ugari eragiten ari baitzitzaizkien. Halaber, txartel bakarraren deskontuak lehenengo bidaietatik nabarmen hobetzeko konpromisoa hartu zuen.



IRISGARRITASUN UNIBERTSALA, BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GIZARTEA LORTZEKO FUNTSEZKOA

“Irisgarritasun unibertsalaren” kontzeptua ingurune edo zerbitzu batek pertsona guztiek eta, bereziki, ezgaitasunen bat dutenek modu eroso eta seguruan eta aukera berdinekin erabili ahal izateko bete behar dituen ezauzgarrien multzoa da. Ingurune irisgarria funtsezkoa da eskubide berdintasunean oinarritutako gizartea lortzeko. Gure gizartean irisgarritasunari dagokionez izan diren **aurrerapenak gorabehera**, sektoreko ikuspegia gainditu eta ikuspegi integratzaileagotik begiratura, **oraindik asko dago egiteko**. Udalek merkataritzako lokaletan jarduera berriak jartzean edo aldaketak egitean irisgarritasunari buruzko araudia betetzen ote den ez kontrolatzeak edo udalerrietako espaloietan beharrezkoak behar bezala ez egiteak hainbat erreklamazio eragin dituzte.

Laudioko Pertsona Ezindu Fisikoen Elkarteak hainbat kexa aurkeztu ditu Arartekoan, udalerrian, obra berriak egiterakoan, irisgarritasunari buruzko araudia kontuan hartu ez zela egiaztatu ondoren. Espaloietan ez ziren beharrezkoak egin eta oinezkoentzako goiko pasaguneak ez ziren egokitu. Ibilgailua aparkatzeko plaza bat ere ez zen gorde mugikortasun urriko pertsonentzat. Aztertu ditugun kasu guztietan, udala bera da salatutako hiri-gintzako ilegaltasunen erantzulea eta berak hartu behar ditu egiaztatutako irregulartasunak ongitzeko beharrezkoak diren neurriak. Elkarte horrek **berak salatu zuen merkataritzako lokalak etxebizitza gisa egokitzerakoan irisgarritasunari buruzko araudia urratu zela**. Irregulartasun horiek berriki eraikitako etxebizitzetatik gutxienez zaspitan ikusi dira. Kexa-espeditze horiek izapidetzeko prozesua Laudioko Udalarri 14 gomendio eginda amaitu zen.





JAIETAKO ZENBAIT JARDUEREK BEREZIKI LARRIAK DIREN ERAGOZPENAK SOR DITZAKETE

Urte osoan hainbat kexa-espeditu izapidetu ditugu jaietan jartzen diren **txosnek**, ostalaritza establezimenduen kanpoaldean jartzen diren barrek, **barraken** funtzionamenduak eta plaza eta parke publikoetan egiten diren **dantzaldi edo konzertuek** eragindako **zarata-eragozpenengatik**. Espediente horiek izapidetzerakoan ikusi ahal izan dugunez, oro har, udalek jarduteko plan zehatzak dituzte era horretako ekitaldiak behar bezala garatuko direla bermatzeko.

Hala ere, ez dira bidezko egiaztapen lanak egiten jarduerak hasi aurretik; aitzitik, neurriak ondoren hartzen dira eta, askotan, arduradunei irregulartasun horiek zuzendu behar dituztela ohartarazi baino ez zaie egiten. Hortaz, beharrezkoa iruditzen zaigu, jaietan hutsen bat antzemanaz gero, udalek kasu nahitaezkoak diren neurriak hartzea jaietako jarduera horien legez kontrako funtzionamendua eragiten ari litekeen kalteak albat arinen saihesteko. Ez dugu ahaztu behar kasu horietan sortzen diren zaratak zuzenean kaletik etortzen direla eta, beraz, horiek eragin ahal izango lituzketen zarata-eragozpenak bereziki larriak izan litezke.



PFEZren LIKIDAZIO PROPOSAMENAK EZ ZEKARREN ELIZARAKO EDO INTERES SOZIALEKO BESTE XEDE BATZUETARAKO ZIOEN LAUKITXOA

Pertsona batek adierazi zigun ez zegoela ados **Bizkaiko Foru Ogasunak** zenbait zergaduni bidaltzen dizkien **PFEZ**ren likidazio proposamenetan zerga-esleipenari ematen zitzaion tratamendurekin. Azaldu zigunaren arabera, etxean proposamena jaso zuenean, eta haren edukia aztertu ondoren, ez zuen ikusi zerga-esleipena zertarako -Elizarako edo interes sozialeko beste xede batzuetarako- erabiltzea nahi zuen adierazteko laukitxorik. Foru Ogasunera dei egin zuen hori jakinarazteko eta, antza, bertan telefono zenbakia eman zioten, zer aukeratuko zuen adieraz zezan. Erreklamatzailleak uste du sistema hori ez dela egokia: batetik, hainbat jende beharbada ez delako laukitxoa falta dela ohartuko eta, beraz, ez duelako aukerarik adieraziko; eta, bestetik, zergaduna, telefonoz egindako gestioaren ondorioz, egindako aukera frogatzen duen egiaztagiririk gabe geratzen delako.

Ogasunarekin harremanetan jarri ginen eta honek erantzun zigun **“Rentanet Etxean”** likidazio proposamenen sisteman, ekitaldi berean zergadunaren aitopenei ez dagoenez, PFEZren azken aitopenean jarritako aukera bera hartzen dela kontuan. Gainera, hautatutakoa aldatzeko aukera ere ematen dio, nahiz eta onartu zuen likidazio proposamenak ez zekarrela berariazko laukitxorik zergadunak aukera bertan egin dezan. Ogasun Sailak, sistema honetan zergadunak urtero aukeratzen duenaren egiaztagiririk izan ezin dezakeela ohartuta, hurrengo kanpainetan informazio hori emateko neurri egokiak hartuko zituela adierazi zigun.

16 ASTEETATIK AURRERA NATURALKI EDOSKITZEAK EZ DU HAUTESKUNDE MAHAÍ BATEKO KIDEA ÍZATEKO BETEBEHARRETÍK SALBUESTEN

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat gestio egitera eramán gaituzten jarduerak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. Arlo honetan jasotako gaietako batean pertsona batek **adierazi zigun udal hauteskundeetan hauteskunde mahaiko buru izendatu zutela.**

Adierazi zigunaren arabera, betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu zion zonaldeko hauteskunde batzordeari; bere ustez, ezin zuen kargua bete, **11 hilabeteko neskatoa baitzuen** eta hau naturalki edoskitzen baitzuen. Haatik, batzordeak uko egin zion haren eskaerari.

Hauteskunde araudiari jarraiki, betebeharrak horretatik salbuestia izateko, kargua onartzea eragozten duen bidezko arrazoia adierazi behar da, agiri bidez, zonaldeko

hauteskunde batzordearen irizpidearekin bat, hura onartu edo baztertu dadin. Batzordearekin harremanetan jarri ginen eta, honek adierazi zigunez, erabilitako irizpidea izan zen edoskitzeak, lehen 16 asteetan, hauteskunde mahaiko kide izateko betebeharrak salbuesten zuela. Ondoren, edoskitze naturala salbuespenezko kasuetan bakarrik har zitekeen kontuan, eta, soilik, haurrak gehienez bederatzí hilabete bazituen, betiere, kasuan kasu adierazi eta behar bezala egiaztatzen ziren inguruabarren arabera.

Batzordearen arabera, eta lan arloko araudiak dioen moduan, behin 16 asteak igarota, edoskitzea kontuan hartu beharreko alderdia da, baina ez betebeharrak salbuesteko, baizik eta mahaian egoteko ardurá arintzeko. Bestela esanda, mahaiko buruak ikuskatuta, haurra elikatzea joan eta itzultzeko behar beste denbora har zitekeen. Horiek horrela, gure esku-hartzea eten genuen.

TORBELLINO DE AMOR

Beste pertsona batek laguntza eskatu zigun Guggenheim museoan baimenik gabe ikusgai jarri zen **bere jabetzako pintura-obra bat topatzeko.** Museoko bisitariak obra ikusteko aukera izan zuten zenbait orduetan, bere garaian ospea lortu zuen **“arte efimeroaren ekintza”** zela konturatu gabe.

Museoak gertakaria salatú Ertzaintzan, eta Ertzaintzak margolana berreskuratú eta frogá gisa aurkeztú zuten Guardiako Epaitegiaren aurrean. **Epaitegiak, azkenean, eginbideak artxibatú egin zituen.** Baina autoreak ez zuen margolana berreskuratzerik lortu, nahiz eta hiru urte baino gehiagoan behin eta berriz saiatu zen. Izan ere, polizia esaten zuen gainerako frogekin batera kasuaz arduratzen zen epaitegian entregatu zuela, eta epaitegiak, berriz, margolana ez zuela jaso esaten zuen, ez baitzen gordailutze judizialean azaltzen.

Gure kudeaketek ere ez zuten ondoriorik izan epaitegian, baina bai Ertzaintzan. Galtzearen arduradun izan ez arren, Ertzaintzari eskertu behar diogu Arartekoarekin lankidetzan aritu izana gordailutze hori arakatzen **“Torbellino de Amor”** deituriko margolana aurkitu arte; armak erabiliz bankuko sukurtsal baten lapurretakó frogan artean sailkatuta zegoen.

Ezin izan zen jakin zer arrazoirengatik bukatu zuen margolanak han.



© Mike Nedo



GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK EAEn

Gaur egun, etxebizitza bat eskuratzea da herritar askoren **kezka nagusia**, gazteena batez ere. **Etxebizitzen gehiegizko prezioak** biziki eragiten die, dudarik gabe, oraindik lehen etxebizitza lortu ez dutenei; horietatik gehienak gazteak dira. Horregatik, gazteak dira egunetik egunera egiturazko dimentsioa hartzen ari den sistemaren akats horren biktima nagusia.

Txosten honetan, gazteek etxebizitza lortzeko duten arazoa jorratzen da eta, gure ustez, oraingo egoera hobetzen lagundu dezaketen hainbat gomendio egiten dira, izan ere, orain etxebizitza merkatu librean oso garesti dagoenez gero, biztanle ugari lehen etxebizitza eskuratzeko zailtasun objektiboa dute.

Ikusi ahal izan dugunez, **gazteei eragiten dieten arazotako askok etxebizitza behar duten gainerako biztanleei ere eragiten diete**. Horregatik, gure gomendioetako asko etxebizitza-politika publikoak oro har hobetzera bideratu dira.

Etxebizitzaren politika publikoak aztertzeko, **gure ereduua Europako beste eredu batzuekin erkatu dugu**. Aztertu ditugun herrialdeetan, gizarte etxebizitzaren sektorea deritzana funtsean administrazio publikoen edo irabazteko asmorik gabeko administrazio erdi-publikoen eskuetan dago, ez gure inguruan etxebizitza babestuekin gertatzen den bezala, hemen batik bat esku pribatuetan baitaude.

Egindako gomendioak euskal administrazio publiko askorentzat dira, ez bakarrik etxebizitza arloaren ardura

bere gain dutenentzat. Politika anitzek eragin dezakete etxebizitza lortzeko egoeran, eta instantzia ezberdinek bideratzen dituzte politika horiek (hala gertatzen da lurraldearen antolamenduarekin, zerga-politikarekin, gizarteratzeko politikekin eta zeharkako beste politika batzuekin). Haatik, **babes publikoko erregimena duten etxebizitzak sustatzeko politikak nabarmendu ditugu** batez ere, gaur egun horixe delako jarduera publikoak hartu duen bide nagusia.

GOMENDIO NAGUSIAK

Burututako analisiaren ondorioz, **42 gomendio egin dizkiegu arlo honetan eskumenak dituzten euskal administrazio publikoei**, etxebizitzaren arloko esku-hartze publikoan orain erabiltzen diren sistemak eta tresnak hobetzeko asmoz.

Honako hauek nabarmenduko ditugu:

1. EAEn **alokairuko etxebizitza babestuaren aldeko apustu tinkoa egin** behar dela adierazten dugu. Horregatik, hona hemen gure gomendioak:
 - _ batez ere alokairuko etxebizitza babesturako erabil ditzatela etxebizitza-politiketarako eman zaizkien baliabide publikoak;
 - _ ahaleginak egin ditzatela alokairuaren eskaintza erakargarriagoa sortzeko (errenta arrazoizkoagoak);
 - _ alokairuko etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko formulak bila daitezela, alokairuko etxebizitzaren parke publikoak



sortu ahal izateko;

- _ gehitu daitezela alokairurako oro har ematen diren zuzeneko laguntzak edo zeharkakoak;
- _ tokiko erakundeek prozesu horretan parte har dezatela, alokairuko etxebizitza babestuari buruzko programa bereziak ezarri;
- _ aldi baterako bizitokien figura berria sortzen lagun dezatela, zuzkidurazko ekipamendua duten lur-zatietan.



Arartekoa Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko presidentarekin

2. Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu **etxebizitza babestuaren tipologia guztietarako araudi komuna** sustatzea, etxebizitza babestuari buruzko euskal lege bat atereaz.
3. Bestalde, etxebizitza babestuak **lortzeko prozedurei** dagokienez, funtsezkoa da:
 - _ oraingo zozketaren ordean, baremazioa lehenetsiko duten sistemak ezartzen laguntzea.
 - _ etxebizitza babestuen eskaintza behar bezain ugaria izatea, diseinuetan nahiz neurrietan, eta gaur egungo beharretara egokitzea.
4. **Etxebizitza babestuaren parkea kudeatzea** dela-eta:
 - _ aintzat hartu behar da famili unitateen egitura aldakorra, eta etxebizitzak mugitzeko eta aldatzeko sistema bat eskaini behar da, etxebizitzaren adjudikazioa familietan sortuz doazen behar aldakorretara egokitu ahal izateko.
 - _ une oro bermatu behar da etxebizitza babestuen funtzio soziala. Horretarako, etxebizitza horien erabilera kontrolatzeko bideak jarri behar dira, ikuskatze sistemen bitartez.
5. Erakunde honen iritziz, etxebizitza-politika propioak abiarazteko ahalmena duten hainbat administrazio publiko daudenez gero, ezinbestekoa da **erakunde horien artean koordinazio eta lankidetzaren sistema sendoa** ezartzea, etxebizitza-politikak, oro har, euskal herritar guztien onurarako izan daitezkeen, etxebizitza babestua EAEko lurralde osoan modu homogeneoan sustatuko dela bermatuz. Horren haritik, **EAEko Hiri-gintza eta Etxebizitzarako Topagunea** dinamiza dadin proposatzen dugu
6. Azkenik, **gazteentzako etxebizitza**-ekimenak bultzatzeko **berariazko gomendioak** egiten ditugu, orain arte ia ez baitzegoen halakorik.

Ondorio gisa, Konstituzioaren 47. artikulua pertsona guztiek etxebizitza edukitzeko eskubidea dutela adierazten du. **Alabaina, etxebizitzaren sustapen publikoa ez da, nahitaez, etxebizitza jabetzan edukiko dela ziurtatzera bideratu behar, hori ez baita berez esku-bide bat.** Etxebizitzaren premia duintasunez eta modu egokian ase daiteke etxea edukitzeko beste modalitate batzuen bidez, esate baterako alokairuaren bidez.

Horregatik, agerian jarri nahi izan dugu **babes publikoko erregimeneko etxebizitzak sustatzeko politikak aldatu behar direla**, bada, gure iritziz, indar handiagoz bideratu behar dira alokairurantz. Alokairuko etxebizitzaren parke publiko bat eraikiko balitz, modu malguagoan erantzungo litzaieke biztanleen beharrei, premiarik handiena dutenak lehenetsiz eta oraingo edukitze modalitateek eragiten duten zurruntasuna saihestuz.

Arlo honetan eragiteko ahalmena dugun pertsona, elkarte eta erakunde guztien artean, ahalmen hori txikia izanik ere, oraingo egoeraren benetako eraldaketa bultzatu ahal izatea espero dugu, Konstituzioan aldarrikatutako etxebizitza edukitzeko eskubidea pertsona orok beteta ikusiko duen gizarteranzko bidean.



© DEIA

ERTZAINZAK ETA UDALTAINGOAK POLIZIAREN XEDEETARAKO BILTZEN DITUZTEN DATU PERTSONALAK OFIZIOZ BALIOGABETZEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak datuak babesteko oinarriko eskubidea garatzen du eta haren berme sistema zehazten du. Lege horrek poliziaren xedeetarako biltzen diren baina egin beharreko ikerketetarako beharrezkoak ez diren datuak balio-gabetzera behartzen ditu segurtasun indar eta kidegoak. Alabaina, ez dira balio-gabetuko horrek Estatuaren defentsarako edo segurtasun publikorako, hirugarrenen

eskubide eta askatasunen babeserako edo bidean diren ikerketa-lanen premietarako arriskua dakarrenean.


Euskal administrazio publikoen menpeko polizi kidegoak aipatutako lege araubidea nola betetzen ari ziren ezagutze aldera, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalei eskatu genien Ertzaintzak eta hiru hiriburu-etako udaltzaingoez kontu horri dagokionez nola jarduten duten jakinaraz ziezagutela.

Gure jarduera poliziaren datuetara mugatu genuen, horiek **babes bereziaren pean jarritako datuak** direlako eta datu pertsonalen babesaren gaia arautzen duten printzipio orokor eta eskubide-etako batzuk salbuesten dituelako, adibidez, interesdunak datu horiek bildu eta tratatzeko baimena emateko eskubidea, bilketaren gaineko informazioa izateko eskubidea eta datuak kontsultatu, zuzendu eta balio-gabetzeko eskubidea.

Jarduera hori erakunde honek adingabeei buruzko datuak zabaltzearekin erlazionatuta burutu zuen beste esku-hartze batengatik ere garatu zen.

Eskaini zizkiguten azalpenen arabera, atera genuen ondorioa izan zen Ertzaintzak behar bezala betetzen duela aipatu betebeharra, betiere, hori egin ahal izateko informazioa baldin badu; aldiz, Bilboko eta Gasteizko Udaltzaingoez ez dute betetzen eta Donostiakoak partzialki betetzen du. Hortaz, **beharrezkoa da tartean diren administrazioek gai honetan jardutea**, poliziaren xedeetarako bildu diren eta, ondoren, derrigor balio-gabetu behar diren datu pertsonalak ofizioz balio-gabetzen ari ez diren polizi kidegoek hala egiteko beharrezko tresnak beregana ditzaten.

Horretan guztian oinarrituta, gomendio orokorra egin dugu, oraindik hala egin ez duten euskal administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek arlo honetan ezarritako lege aurreikuspenak bete ditzaten eta horiek aplikatzeko beharrezko irizpideak eta prozedura bilduko dituen jarduteko protokoloa ezar dezaten.





© DIARIO VASCO

KOMENIGARRIA DA ESKOLA MAPA BERRIAREN ILDOTIK HAUR ESKOLETAN ONARPEN IRIZPIDE KOMUNAK EZARTZEA

Azken urteotan EAEko hezkuntza-eskaintzan izan den aldaketa garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, zero urtetik hiru urtera bitarteko **haur hezkuntzako lehen zikloa pixkanaka zabaldu izatea da**. Hala ere, zabalzte hori beti ez da izan aurretiazko plangintza-lanaren ondorioa. Horregatik, eta adierazitako asmoa ikusita, alegia, eskola-mapa hezkuntza-eskaintza osoa planifikatzeko oinarritzko eta funtsezko tresna izan dadila, egokitzat jotzen dugu, azkenean, eskola-mapak programatutako eskaintza osoa barnertzea, baita haur hezkuntzako etapa osoa ere (zero eta sei urte artekoa).

Asmo barne-hartzaile eta integratzaile horrek bi ekimen ekarri ditu berekin. Batetik, eskola-mapa prestatzeko irizpideen proposamen gisa jaso dena dugu; horren bidez, **prestatuntza-ibilbide osoa diseinatzea proposatu da**, familiek unibertsitateaz kanpoko mailetako eskolatzea amaitu arteko ibilbidea zein den ezagutzeko aukera izan dezaten. Horretarako, hainbat maila edo etapetako ikastetxeak elkarri atxiki dakizkioke, nahiz eta horiek bakartzat hartuko diren ikasleak onartzeari begira.

Bestalde, **Haurreskolak Partzuergoaren** menpeko haur eskolak sare publikoko ikastetxeekin elkartu dira eta, horrela, unibertsitateaz kanpoko mailako prestatuntza-ibilbide osoa aurretik zehazten da. Irizpide berri horiei esker, hilabete gutxi batzuk baino ez dituen haur batek, bere familiak hura haur eskola jakin batean eskolatzea erabakitzen badu, unibertsitateaz kanpoko prestatuntza

amaitu arte eskola-mapan diseinatzen den prestatuntza-ibilbide osoa bermatuta izango du. Horregatik da beharrezkoa antzeko baldintzak ezartzea, horiei esker abiapuntuko egoera finkatzeko eta, bertan, **hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko aukerak berdinak izateko**.

Itxuraz, haur eskolei buruz onetsitako araudiak bere egin zuen asmo hori, izan ere, zero urtetik hiru urtera bitarteko haurrezko eskolak arautzen dituen Dekretuak honakoa ezarri zuen: "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, tartean diren erakunde guztiak entzun ondoren, zero eta hiru urte arteko haurrak onartzeko irizpide orokorrak finkatuko ditu bai ikastetxe publikoetarako bai laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten beste ikastetxe batzuetarako." Alabaina, bizi dugun errealitatea oso bestelakoa da: **Ez dira irizpide komunak ezarri** eta, ondorioz, funts publikoekin lagundutako haur hezkuntzako eskaintza programatuaren baitan, hezkuntza-zerbitzuak ezin dira berdintasunez eskuratu.

Hala, eskola-mapa berriaren printzipio nahiz helburu gisa hainbeste defendatzen den aukera berdintasun hori benetan ziurtatu nahi bada, uste dugu **ezinbestekoa dela hezkuntza-administrazioak gainerako eragindako administrazioei laguntza eskatzea** (besteak beste, hezkuntza-zerbitzu propioak dituzten udalei), horrela, funts publikoekin lagundutako hezkuntza-eskaintza osorako **onarpen irizpide komunak ezarri** ahal izateko.

ARGITALPENAK

■ **Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena**, aurreko urtean Ararteko erakundeak burututako jarduera biltzen duena.

■ Ezohizko txostena: **Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn**.

■ **Legez kanpoko egoeran dauden atzerritarrak beren eskubideez baliatzean udal erroldak duen eragina**, José Zarauzi emandako ikerketa-bekaren emaitza. Azterlan honetan, legez kanpoko egoeran dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritarren integrazio prozesuarekin oso lotuta dauden eskubideez baliatzean erroldak duen eragina aztertu da. Horrek erakusten duenez, osasuna, gizarte babeseko sistemak eskuratzeko aukera (besteak beste, oinarrizko errenta eta gizarte behar larrietarako laguntzak), adingabeen hezkuntzarako eskubidea, etxebizitzaren arloko laguntzak eskuratzeko aukera edo pertsona horiei administrazio erregulartasuna lortzea ahalbidetzen dieten mekanismo jakinak eskuratzeko aukera, neurri handi batean, pertsona erroldatuta egoteak edo ez egoteak baldintzatzen ditu. Erroldatzea zailtzen duten arrazoiei dagokienez, horiek, funtsean, bitan bana daitezke: etxebizitzarik ez izatea, bertan erroldatu ahal izateko, eta agirik ez izatea.

■ **Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan: egoera eta itxaropenak**. Arartekoak sustatu duen eta Juan Luis Fuentes Nogales eta Trinidad L. Vicente Torradok egin duten ikerlan honen xedea gure gizartean finkatutako magrebtarregana hurbildu eta haien iritzi, balorazio eta itxaropenak biltzea da, beren nortasunaren eta erlijio, kultura eta parte-hartze bizipenaren ikuspegitik, bereziki. Euskadin bizi diren magrebtarrek ez dute harrerako gizartearekiko harremana mugatu nahi, baina bi aldeek elkar errespetatzeko beharra aldarrikatzen dute, beren nortasun eta kultura propioekin, eta pertsona guztien eskubide eta aukera berdintasuna onartzea, beren jatorria edozein dela ere, integrazioarako






2007ko Giza Eskubideen kartela

funtsezko elementu gisa. Integrazio prozesua, beraz, elkarrekiko prozesua izango da, dinamikoa, eta prozesu horretan, gizarte hartzaileko kideek ere parte hartu behar dute aktiboki.

■ **Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean: gizarte klasea eta generoa osasunaren faktore erabakigarri gisa**. Amaia Bacigalupe de la Herak eta Unai Martín Roncerok egindako lan honek egoera sozioekonomikoak eta generoak pertsonen osasun egoeran duen eragina aztertzen du. Azterlanak erakusten duenez, bizi itxaropena handiagoa izan arren, emakumeek gizonek baino osasun kaskarragoa dute, neurri batean, gizarteak batzuei eta besteei eginkizun eta esparru sozial jakinak ematen dizkielako eta horiek haien bizitzako aukeretan eta esperientzietan eragiten dutelako eta, beraz, baita osatze eta gaixotze prozesuetan ere.

■ **Derechos ciudadanos**, autonomia-erkidegoetako herriaren defendatzaileek urtero ateratzen duten aldizkaria. Ale honetan, herritarren bizi kalitateari eta beren eskubide konstituzionalei modu negatiboan eragiten dien egoera baten aurrean, hots, hirigintzako jarduerak gizartean eta ingurumenean duen eraginaren aurrean, defentsa-erakundeak duten iritzia jasotzen da.



■ Abenduaren 10ean **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna** ospatzen denez, Ararteko erakundeak, herritarren biztanleen defendatzaile gisa, kartela argitaratzen du, ikastetxeetan jar dadin. Horren helburua gizarte egoera ahulean dauden pertsonen beharrezan inguruko hausnarketa ahalbidetzea eta beharrezan horiekiko sentikortasun handiagoa sortzea da, baita giza eskubideak defendatzen eta babesten modu aktiboan jardungo duen gizartearen aurrera egin ahal izatea ere. Era berean, egutegi elebidunak ere argitaratu dira eta horietan haurren oinarritzko 10 eskubide aipatzen dira. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan banatzen dira.

■ **Gizarte esku-hartzearen hirugarren sektorean lan egiten dutenen lan baldintzei buruzko txostena.**

Txosten hau laster argitaratuko da. Bertan, EAEn adinekoekin, adingabeekin, ezgaitasunen bat duten pertsonekin, gizarte bazterkeriako egoeran daudenekin, etab. lan egiten duten irabazteko asmorik gabeko 898 erakunderi zuzendutako galdera-sorta zabalaren emaitzak aztertzen dira. Hainbat alderdiri heltzen die: diru-laguntzako sistemak, langileen egonkortasuna, profesionalizazio maila, prestakuntza, lan hitzarmenak, bajak, lanaldiak, etab. Sektorearen “argazkia” eta diagnostikoa eskainiko ditu, baita zenbait gomendio ere, lan baldintzak hobetzeko eta oso egoera ahulean dauden biztanle taldeei eskainitako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.



Arartekoa Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko presidentearekin

IKERKETA BEKAK

Francisco Javier Leturia, Nerea Lezertua, Xavier Ibarzabal, Ana Orbegozo eta Nerea Etxanizi ikerketa aplikatuko beka bat eman zaie. Horiek adinekoen eta beren zaintzaileen eskubideei eta tratu ezegokiaren prebentzioari buruzko azterlana egingo dute.

Halaber, 2007an beste ikerketa-beka bat eman zaie Ana Isabel Pérez, Laura Pego eta Izaskun Orbegozori, “Incomunicación: eficacia versus derechos humanos” izeneko proposamenean lan egingo.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Julia Hernández arartekoaren ondokoak lagunduta, Iñigo Lamarca **Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XII. Biltzarrean** izan zen azaroan Perun. Aurtien, biltzarraren gaia honakoa izan zen: **“Berdintasuna eta bereizkeriarik eza: Iberoamerikako defentsa-erakundeen erantzukizuna”**. OIFen helburu nagusia foro bat sortzea da, elkarrekin lan egiteko, batak besteari bere esperientzien berri emateko eta Ombudsmanaren irudia sustatu, ezagutarazi eta indartzeko; orobat, herrialde iberoamerikarretan giza eskubideen kultura zabaltzeko ere egin nahi du. Aurretik, arartekoak **“Gizarte bazterkeria eta giza eskubideak”** izeneko IV. mintegian parte hartu zuen Rosarioren (Argentina).

■ Iñigo Lamarcak **lankidetzaz-hitzarmenak sinatu zituen Valentziako Erkidegoko síndic de greugesekin eta Asturiasko Printzerriko prokuradore nagusiarekin**. Horien bidez, Ararteko erakundeak zenbait material didaktiko eta hezkuntzazkoak erabiltzeko eskubidea eman zien. Material horiek hiru lan ildotakoak dira: Gure eskubideak; Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarrituta; Giza Eskubideen Hezkuntza: abiapuntua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da eta balio etikoei, jokabideei eta eskubideei buruz hausnarketa egitera bultzatzen du; Generando-Sortuz: materialak generoaren teoriak eta emakumeen giza eskubideez dihardu.

■ **Estatuko Herriaren Defentsa Erakundearen 25. urteurrena** zela eta, Enrique Múgica buru duen erakundeak jardunaldia antolatu zuen honako izenburu generiko honen pean: **“Herriaren Defentsa Erakundeak, herri-tarrek giza eskubideak eta askatasunak libreki erabili ahal izateko aukeraren bermatzaile gisa, sistema demokratikoa finkatzen duen zeregina”**. Arartekoa ere bertan izan zen, bai Europako bai Latinoamerikako ombudsmanaren beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera.



Iñigo Lamarca Rosarioren (Argentina)

■ **Bakerako Hezkuntzaren Galiziako Mintegiak** hitzaldi zikloa antolatu zuen Santiagon. Bertan, Iñigo Lamarca arartekoak ondorengo izenburua zeraman hitzaldiarekin parte hartu zuen: **“Giza eskubideen balio demokratikoak indarkeria deuseztatzeko bide gisa”**.

■ Arartekoak agerraldia egin zuen Bartzelonan antolatutako jardunaldi batean, Kataluniako Generalitateak onetsi zuen **lesbiana, gay eta transexualak ez diskriminatuzko sailarteko plana** ezagutarazi eta eztabaidatzeko.

■ Urtean zehar, arartekoak **hitzaldi ugari eskaini ditu hainbat unibertsitatetan**, esaterako, Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean, Complutensean (Bizikidetzaz eta gatazkak ikastetxeetan izeneko txosten monografikoa aurkeztu zuen) eta Deustuko Unibertsitatean (“Drogamenpekotasunetako Aurrerakuntzei” buruzko XV. simposioa antolatu zuen). Zenbait udalek **antolatu dituzten hainbat jardunaldi eta ekintzetan** ere izan da, besteak beste, Burlatako Udalak sexu jazarpenari eta sexu orientazio-agatik indarkeriari eskaini zion astearen, edo Galdakaoko Udalak antolatu zituen “Generoa eta giza eskubideak” izeneko jardunaldien inaugurazioan.

■ Julia Hernández arartekoaren ondokoak nazioarteko mahai-inguru batean parte hartu zuen Poitiers-en:

Arartekoa Catalunyako Escola d'Administració Pública antolatutako jardunaldian



"Bakarrik dauden adingabeen migrazioa Europan: jatorrizko testuinguruak, migrazio ibilbideak eta harrera-sistemak".

■ Azaroan, "Gazte delinkuentziako fenomenoak: zigortzeko modu berriak" izeneko nazioarteko kongresua egin zen Sevillan. Bertan, arartekoaren ondokoak honako agerraldi hau egin zuen: "Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak babesteko legeria berriaren premia". Bartzelonan egin zen Haur eta **Nerabeen Eskubideei buruzko Munduko III. Kongresuan** ere parte hartu zuen.

■ Abenduaren 3an Ezintasunen bat duten **Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatzen denez**, Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak (FEEKOR) ekitaldia antolatu zuen Bilbon "Iguales en la diversidad, Aniztasunean berdinak" lelopean. Bertan, arartekoaren ondokoa izan zen Ararteko erakundearen ordezkari gisa.



Arartekoa Asturiaseko Printzerriko prokuradore nagusiarekin



Herraren Defendatzaileak

HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO JARDUNALDIAK

Ararteko erakundearen ordezkari talde batek **Herriarren Defendatzaileen Koordinaziorako XXII. Jardunaldietan** parte hartu zuen Bartzelonan; "Defentsa erakundea eta horren erabilgarritasuna herritarrentzat" izan zuten gai nagusi. Koordinazio jardunaldi hauek Espainiako herriaren defendatzaileen lanaren eta eginkizunaren barne eta kanpo audiotoretza gisa har daitezke. Barnekoa, defentsa-erakundeek beren lanaren hainbat alderdi aztertu zituztelako; eta, kanpoko, jardunaldietan unibertsitateko hainbat irakaslek parte hartu zuelako eta, beren txostenen bidez, bule-

goen eraginkortasuna eta gizarte, Administrazio eta Parlamentuarekiko harremana baloratu zutelako. **Herritarren Eskubideei buruzko Foroaren** saioetan, jendeak parte hartu ahal izateko bi eztabaida antolatzear gain, hainbat gizarte erakunderi eman zitzairen hitza, besteak beste, Gurutze Gorria edo Cáritas erakundeei, baita iritzi-sortzaileei ere, esaterako, Javier Marías, Manuel Rivas, Carme Riera eta Luisa Etxenikeri, defentsa erakundeak nola ikusten dituzten eta beren etorkizuneko erronkak nola izan behar luketen adieraz zezaten.



Arartekoa udako ikastaroko hizlariekin

UDAKO IKASTAROAK

Ararteko erakundeak, EHUren udako ikastaroekin elkarlanean, **“Ingurumenean edo gizartearen eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan herritarrek duten parte-hartzea”** izeneko jardunaldia antolatu zuen Donostian, Miramar jauregian.

Jardunaldi honek zenbait printzipio aztertzea zuen helburu, esaterako, herritarrei informatzea eta herritarrek parte hartzea, gai publikoen berri izateko eta horietan parte hartzeko eskubidea, gaiok garrantzi berezia baitute kalitatezko demokrazia batean. Iñigo Lamarca arartekoak adierazi zuenez, "ingurumenean edo pertsonen osasunean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakiak hartzean, askotan agerian jartzen da demokrazia ordezkatzailerak eskaintzen dituen mekanismo erabakitzailerak ez direla nahikoak, eta parte hartzeko bideak eratu behar direla, hartzen diren erabaki publikoei legitimotasun handiagoa emateko".

Defendatzaileen lana ez da mugatzen jarduera publikoen legezotasuna kontrolatzera, pertsonen eskubideen erabilera nahiz administrazio publikoen funtzionamendua etengabe hobetzearen alde ere egin behar duelako. Hori dela-eta, arartekoak, eskainitako hitzetan, zera adierazi zuen: "hausnarketa eta eztabaida ingurunea sortu nahi izan dugu. Bertan, batetik, ordenamendu juridikoak zien-

tzia juridikotik gaien eskaintzen dituen aukerak aztertuko genituzke; bestetik, ahotsa eman nahi izan zaie herritarren eskubideen babesa egiten eta bizi kalitatea hobetzen saiatzen diren eta ingurumenaren eta herritarren parte-hartzearen eremuetan lan egiten duten pertsonei".

Arartekoaz gain, jardunaldian esku hartu zuten **Enrique Alonso** Unescoko Katedrako irakasleak eta **Juli Ponce** eta **M. Jesús Larios** Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak.

Lehen aldiz, **ikastaro hau Arartekoaren hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroarekin bat etorrarazi zen**; foro hori aurreko egunean egin zen, ikastaroan proposaturiko gaia hausnartzeko asmoz, beren lanbideagatik edo eskarmentuagatik esperientzia zehatz batzuen gainean ikuspegi enpirikoagoa eman zuten pertsonekin. Horien artean honakoak topatu ahal izan genituen: **Iñaki Bárcena** eta **Elena Franco** irakasleak; **Florent Marcellesi**, **Carlos Alonso** eta **Pilar Barquín** ekologistak edo **Hans Harms** soziologoa.

Foro horretan, besteak beste, herritarren parte-hartzearen xedeari, jarduera eremua izan beharrekoari eta herritarrek parte hartzeko mekanismo bat balioduna den edo ez aztertzeko irizpideei buruz hitz egin zen.

Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroako partaidetza



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independentea** da.
- **Dohain eskaintzen** den zerbitzua.

ZER EGÍTEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGÍN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4,
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu